

Udal zoologikoa

Mikel Zubeldia Etxeberria

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2006



Zumaiko Udala

*enkar
txanpa*



Udal zoologikoa

Mikel Zubeldia Etxeberria

Julene Azpeitia 19. ipuin lehiaketa

2006

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Mikel Zubeldia Etxeberria (ipuinarena)

© Zumaiko Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Udal Zoologikoko emanaldi-aretoan imajina zahar batzuk ikuskatzen ari zen. Hondarrerako laga zuen filma horrek, gizon batek kanguru baten aurka jokatuako boxeoko-konbataren irudiak zekartzan. Erabat zegoen maiztuta pelikula, denboraren joan-etorriaren goitibeherako soka-dantzari eta zimurduraz beteta: "*Rooney B. Sugar* boxeolariaren irudia ageri zen lehen eszenan; gorputz zimela zen berau, welter pisukoa. Txabusina distiradunaz, beroketa ariketak burutzen ari zen, *di-da!, di-da!*, haizearen aurka ukabilka. Aurkari izango zuen kangurua berriz, boxeolari praka zein goantez jantzita zegoen, morralea muturrean, eta ringaren poste batera hedeaz lotuta. Eta, koadrilateroaren beste bazterrean, zuriz eta ttattar ilunez, epaile jauna: sendoa bera, bibote handi eroiduna. Epaileak kangurua aske utzi, *aurrera!* esan, eta hasiera eman zitzaion konbataari.

"*Rooney B. Sugar*ek eraso gogor bati ekin zion, liztorraren estilo dotoreaz. Ezkerraz keinu egin eta eskuinaz krotxet bat bidaliaz, *ttak*, eta aurrera egin eta, eskuinaz beste gako bat, *danba!*, sabelera. Eta kanguruaren ukabilkada xaloak atzeman eta berriz ere, *ttak*, beste krotxet bat opari eginaz muturrera. Gupidagabe ari zen *Rooney*, bere gogara grinatuta. Makina bat aldiz lortu zuen kangurua soketara txokoratzea. Borroka eteten zuen epaileak, eta elkar besarkatzen zuten. Berriz ere borrokari ekin eta berehala errepikatzen zen kontu bera. Harik eta bigarren epaileak kanpaia jo, eta kangurua lipar batez infernu gorritik libratu zuen arte.

"Bigarren rounda hasi eta atakea areagotu zuen *Rooney*ek. Muturrekoak ezker-eskuin jaurtitzen hasi zen; kazkabarra bezala. Ezin erantzun oldarrari, martsupialio gaixoak. Bor-bor, isuri zitzaion odola muturretik. Hain ziren motel eta aldrebes haren mugimenduak, non bazirudien une batetik bestera bertan behera lagako zuela epaileak konbatea, eta, *Rooney B. Sugar* garaille izendatuko. Horrela egingo zukeen egiazki, baldin eta kanguruak *Rooneyrengana* jauzi egin eta sekulako ezkerkada eman izan ez balio, ezustean. Panpina baten moduan, zabuka jausi zen *Rooney* lurrera: K.O. Epaileak, belauneko eta grinatuta: *Bat! Bi! Hiru!* eta *Hamar!* zenbatu zituen, baina nola ez zen *Rooneyrengan* erreakzio izpirik, besoak alboetara eramanez, amaitutzat eman zuen konbatea.

"Hurren eszenan kangurua, epailea eta *Rooney B. Sugar* elkarri eskuak emanaz azaltzen ziren ringaren erdi-erdian. Begitarte urdinuaz, zopatu zegoen *Rooney B. Sugar*. Epaileak beso ttiki goanteduna goratu zion kanguru garaileari, gogor. Ikusleen sekulako biba eta buiak antzeman ziren, kapelu aireratze batzuk ere bai.

"Azken eszenan, pantailatik irteteko zorian zen kangurua, mikrofono baten aurrean ageri zen. Kamerari so egiten zion piztiak, eta, barrezka zirudien, filma ikuskatzen ari zen orori axut eginez bezala. *The End.*"

Kanguru garailearen lehen plano gaizki fokatuari begira, herrimina deritzon bihotzondokoa jaso zuen, bete-betean, film hura behatzen ari zen Ardelia Pisanellok. Zinema-proiektorearen argi zorrotada, pantailaratzean, esne koloreko bihurtu zen. Mugiezin jarraitu zuen, baina, Ardeliak; hipnosiak jota bezala.

Kanguru garailearen lehen plano horrek sorlekura eraman zion gogoa: Australiara. Eta, '*When I went to the Sydney Zoo, what did I see? One little kangaroo from Woolloomooloo*' zioen Sydneyko Zoologikoaren ereserkiak oroitu zen. Bere alaba Kittyk aspaldian etengabe abestu izan zion horrekintxe. Oroimenaren zaborretan lizundua uste zuen kantarekin topo egin eta, malko bat joan zitzaion ihesi. Eta beste malko bat bota zuen ondoren, '*When I went to the Sydney Zoo, what did I see? Five blue tongued lizards in a hive*' ahapaldiaz oroitu zenean; eta hurren ahapaldia gogora ekartzen saiatu zen arren, ez zion oroimenak ate hori zabaldu nahi izan.

Eta tuntuna sentitu zen Ardelia. Tuntun askoa. Nola demontre zen posible filma eta ereserki inuzente horiengatik negar-zotin egitea? Kleenexik eskura ez, eta blusaren mahukaz xukatu zituen malkoak. Errimelaz nahastutako malko gazi-gozoak. Öchrelandgo Udal Zoologikoan zuzendari zebilen neska gazteak zinema-proiektorea itzali zuen. Makinaren zurrumurrua isildu zen, argi zorrotada arteko hauts partikulak desagertu, eta, ilunpetan geratu zen emanaldi-aretoa.

Neska fina zen Ardelia; ile motz, beltzaran, aurpegi borobil, eta begi gris-berde ederrekua. Ordubete zeraman aretoko azken lerroan jarrita, pantailari begirik kendu gabe. Aitonak 1925 urte inguruan ateratakoak ziren filmok; hura Australiara iritsi eta berehalakoak. Bost ziren guztira, hiruna minutuko luzerakoak, Fluich kamera batekin 16mm-an atereak. Australiara joandako italiarren diaspora zuten gaitzat: eztei-bazkari amaigabeak, napolitar kantari bihozberen saio negargarriak, edota mozzarella prestatzen ziharduen mamma lodi baten hitz-jarioak zekartzaten, besteak beste. Kanguruaren boxeo-konbate surrealista hark egin zion, baina, bihotzean zimiko. Proiekzio mahaiaren gainean pilatutako filmen bobinak jaso, eta bakoitza zegokion poto herdoilduan sartu zuen.

Pentsakor zen Ardelia; malenkoniatsu. Mila eta bat galdera egingo zizkiokeen egiazki aitona Furiori, herrimin, tristura, deserrotze eta beste hainbat gabeziaren inguruan; hura ezagutu izan balu. Negua ate-joka ari zen Öchrelanden, eta sei hilabete luze igaroak ziren jada Australiako sorlekua utzi zuenetik; urtebete infinitua alaba Kitty besarkatu ez zuelarik; eta Andy lagunaren berri tantaka jasoaz. Ondorioz, aitona Furio hasiera haietan bezain deserriratu sentitzen zen.

Zoriontasunaren antipodetan, hain justu.

Udal Zoologikoko areto nagusia harri zuri eta arbel-teiladun jauretxe galant baten baitan zegoen. Emanaldi-aretoaz gain, narrasti eta intsektuentzako bitrinak, administrazio bulegoa eta oroigarrien boutiquea aurkitzen ziren. Hemeretzigarren mendeko bankero fila(mano)ntroppo batek, hil ondoren, hiriari oinordetzan utzitakoak omen ziren bai jauretxea, baita hura inguratzen zuten hamar hektareako parke eta arboladia ere. Eta, urte luzeetan ahantzita, hiriari bizkarra emanez egon ondoren, Udal Zoologikoa bertan paratzea erabaki zuen 1968an, alkate jaun onbera batek; hiri guztiko ume eta ez hain umeen —hau da, gurasoen— bozkario eta mesedetan.

Udal Zoologikoko bisitari bakanak aspaldi joanak ziren. Ordubete lehenago botatako euri jasak, labezomorroak bezala, den-denak uxatu zituen. Albaitari eta enkargatuek ere alde zurretik utzi zuten lantokia; zereginak garaiz amaitu, eta, horretarako baimena eman baitzien Ardeliak. Matias zaintzaile edadetuak ordea, bertan jarraitzen zuen. Bera, Ardelia etxera laguntzeko prest agertu zen behin eta berriro baina, honek, ezetz, faborez joateko eskatu zion. Eta hala egin zuen zaintzaile fidelak, burumakur.

Bakar-bakarrik geratu zen hortaz Udal Zoologikoan. Ia erabateko isiltasuna nagusi zen bertan, min egiten duen horietakoa. Emanaldi-aretoetik bulegorako bidea hartu zuen. Suge-gorrien txistu arina aditu zuen halako batean. Aitonaren filmak arasa batean gorde eta ordenagailua piztu zuen, atzeratutako e-mail batzuei erantzuna eman asmoz. Ez zuen e-mailontzian Australiako mezurik jaso; dena zen spam eta zaborra. Bizitza legez. Ordu erdiz, udaletxeko zein hornitzaileen e-mail batzuei ping-pongeko erantzun azkarrak eman ondoren, zortziak aldera, poltsa eta berokia jaso eta giltzaz zarratu zuen kristal zeharrargidun atea.

Bulegotik kanpora bidean, bitrinez inguratutako korridore luzea igaro zuen. Erabat zaharkituta zeuden garai batean doratu izandako bitrinak, herdoilak janda gehienak. Ehunka tximeleta dantzari gordeta zituzten bitrinaren aurrean geratu zen Ardelia, eta, hura ispilutzat hartuta, ezpain haragitsu alakadunak margotzen hasi zen purpura-koloreko ezpaineakoaz. Eta, margoa berdintze aldera, ezpaineak barrurantz, eta berriz ere loratzera egin zutela, hara non mariozzat bat pausatu zitzaion boli koloreko blusaren zirrituan barrena.

Une labur baina intentsua izan zen; denborarekin neurtu ezinezkoa. Mariozzatza soin ubelekoa zen —hain justu ikusi zuen—, bina hego beltz brodatu ederduna. Hegaldi neurtu bezain perfektuaz, bigarren eta hirugarren nakarrezko botoien tarteko zirritua profitatu, eta blusan barrena sartu zitzaion, bularrak jaiotzen diren hegi epelean. Eta, bihotz izoztua gordeta zuen partean kosk eginagatik, beste bihotzondoko bat sentitu zuen Ardeliak.

Zirt-zart, begiratu zuen alde guztietara. Ez zen, ordea, mariozzatza ageri. Joana zen. Blusako botoia askatu, eta, gorridura bat nabaritu zuen bular aldean. Puntu tiki bat. Besterik ez. Gertatutakoari garrantzirik eman nahi gabe, botoia lotu zuen emeki. Nahasita zegoen Ardelia. Zygoptera zein Anisoptera mota oro gordeta zituzten bitrinaren zirrikitu batetik ihes egin ote zuen mariozzatzak? Eta, Udal Zoologikoaren behealdera zegoen urmaeletik etorria balitz? Edo, gau hartarako iragarrita zen ilargi bete gorritik baletor? Auskalo. Ez zuen asmatzen Ardeliak.

Kiwi koloreko artilezko beroki luzea jantzi eta, zilarrezko katekorratzaz lotu zuen. Ondoren, larruzko poltsa indiarretik sakelakoa atera eta arretaz aztertu zuen. Ez zion Andyk —anker horrek—, hots egin. Ezta SMS mezu ziztrin bat bera ere bidali. Aurrealdean ezarri zuen poltsa, brast, martsupialioek kume jaioberriak bezala. Tipi-tapa, aurrera egin zuen. Atea ireki baino lehen, atzera begiratu eta ohizkoa legez, *astelehen arte* esan zien bitrinetan gordetako narrasti eta intsektuei; haren lankideak balira bezala. Etengailu nagusia itzali eta larrialdi-irteera makatzen zuten argi-marratxoek, atera bidera lagundu zuten.

Forjazko estruktura loratu batek babesten zituen zirkulu erdiko eskailerak. Hirunaka jaitsi zituen, presaka; ia orkatila bihurritu zuen. Eskailburuko alde banatan, letagin zorrozdun pointer zakurren eskulturak ageri ziren. Beldurra eragin zieten. Hotzikara. Azaroko euri hotza, erruz eta zeharka ari zuen eta bertantxe geratu zen une batez. Ezin zuen baina, inoren eremu hotz horretan geratu; etxera nahi zuen kosta ahala kosta. Berokia askatu, artilezko aterki moduan goratu, eta tximeleta bezala irten zen Ardelia jauretzetik; ia hegaka.

Heskaiezko labirinto obalatu zeharkatu zuen zero gris-ilunaren zamapean. Magnolia hantusteeak, beren hosto lustratuak zerakuskiten. Burdinazko iturri bakarti bati ur-lerro xumea zerion. Aurrerago, likidanbar zuhaitzen hosto gorri biziak, iluntasunaren erruz lausotzera bidean ziren. Dena bihurtzen ari zen beltz edo gris kolore belatu. Pauso azkarrez zebilen Ardelia, Udal Zoologikoaren ate nagusira ahalik eta azkarren iristeko asmoz. Ia konturatu ere egin gabe, arboladi zurrun, malkartsu eta hertsian behera barneratu zen.

Bideko hagin, ihar, ezki edo sahatsen maiestateak izua eragiten zion. Panikoa. Tarteka geratu egiten zen, eta, lizundutako atmosfera hartan gora begira, zuhaitz erraldoien adaska erdi biluziak, eztarrian korapilatzen zitzaizkion. Zenbat eta aurrerago joan, orduan eta korapilo gehiago, eta eztarriko itodura areago. Likenak jandako harzolzako eserleku hutsak apenas antzeman zitezkeen. Tunba abandonatuak ziruditen. Bertatik oso urrun ez zen hiriko parke batean turista norvegiar bat bortxatu zuten joan zen astean, eta atezuan zen Ardelia. Eztanda egingo zuenaren izua piztu zitzaion. Harri txintzarrezko ozeano lupeztuan, adaska zein orbel ustelez gainezka zegoen bide istilduari jarraitu, enbor eroriez paratutako eskailerak jaitsi, eta, kobazulo batean babestu zen; arnasestuka.

Kobazuloaren sarrerak triangulu forma zuen eta harpa baten soken modura jausten zen zeharkako euria Ardeliaren begietara. Hemeretzigarren gizaldiko bankero horrek, maitale kapritxosa baten desirak asetzeko, benetako kobazulo batetik ekarriak omen ziren harkaitzak. Horixe esan zion behin Matias zaintzaileak. Estalaktita eta estalagmitek eite fantastikoa ematen zioten leku hari. Etengabekoa zen uraren hotsa; burrunbatsua. Urek, banbu adaxketara jauzi egiten zuten. Tarteka zerua argizatzen zuten tximistek. Kobazuloaren babesean geratu zen Ardelia erauntsiak iraun zuen artean, nahiz eta ordurako mela-mela zuen artilezko berokia. Baita hezur-muinak ere.

Twinny eta *Marcel* babuino bikotearen orroak aditu ziren, hor nonbait. Kaiolan gordeta izango ziren. Haien orroak entzunda, ea zein jeneroko alkateri otuko zitzaion leku laiotz horretan Udal Zoologikoa ipintzea pentsatu zuen. Askotan egiten zion bere buruari galdera berbera. Ez zen baina, erantzunaren bila hasi. Ez zuen merezi. Bide bazterretako kaioletan gordetzen zituzten zoologikoko animaliak, zirkuetako pizti zigortuak bezala. Zoologikoko

instalazioak zaharkitu eta gaizki zainduak zeuden. Albaitari eta zainzaileek bitartekorik apenas ez zuten. Babuino zein hegazti harraparietarako propio egindako kartoi-harrizko arrokak, Ôchrelandgo giro hezearen eraginez, erdi erorian ziren.

Udaletxeak guzti horren jakinaren gainean ziren arren, muzin egiten zioten Ardeliari. Ez zegoen konponketetarako aurrekonturik. Ezertarako ez zegoen aurrekonturik. Ez gogorik. Ezertarako ez. Lagun argentinar baten esaten zion moduan, *quillombo hutsa*. Gauzak horrela, zoologikoko erakargarri zen *Fun-Gha* panda hartza abuztuko bero kiskaliek akabatu zuten. *Leo* eta *Bassi* lehoiak, leozida bihozgabe batek akabatu berri zituen, txuleta pozoituekin. *Ash* eta *Nart* hienak gaixorik, erdi itzalita ziren. Guakamaioak berriz, bihozbera...

Duela sei hilabete, ezustean topatu zuen Ardeliak lan eskaintza hura. Interneten bitartez. Ez zioten gainera froga berezirik egin lanpostua lortzearen, e-mailez curriculuma bidaltze soila nahikoa izan zen. Artean, Sydneyko Zoologokoan martsupialioen saileko arduradun zen eta aurrerapauso bezala hartu zuen eskaintza hura. Erronka berri bat. Kanpora bizitzera joate horrek gainera, bizitza malerusari goitik beherako aldakuntza ekarriko zion. Mamu beltzak betirako uxatuko zituen. Ez da ahaztu behar Kitty alabaren zaintza berreskuratzeko bideak itxi zizkiotela garai hartan. Andy lagunarekin ere haserretuta zebilela. Erabaki zaila izan zen munduaren beste muturrera joatearena, ez bairik gabe. Baina beharrezkoa.

Eta, Ôchelاندeko Udal Zoologikora iritsi eta berehalakoan, oso gustura hasi zen lanean, eta gogotsu. Dena baitzen diru-laguntza, zaharberitze, plangintza edo egitasmo. Izugarriko inbertsio eta erreformak zeuden aurreikusita zoologikoan, eraikuntza modernoak, eremu Australeko animalientzako sail berria, edo txori migrari espezieen osatze zentroa besteak beste... Baina politikarien promesak, Udal hauteskundeak amaitu eta berehala, azukrea uretan bezala urtu ziren. Horren ondorioz, Ardeliaren haserako kemena egunez egun itzaltzen hasi zen. Eta, Australiatik hona etortzeko hautua okerra izan zela ohartzen hasia zen. Hura sagar ustela. Zenbat damutzen zen aldaketa egin izanaz...

Ez zen SMS zikinik kobazulo hartara iristen. Seinalerik ere apenas ez zen. Zertxobait atertu zuen batean kobazuloa utzi zuen. Bidezidor bihurgunetsu bati jarraitu zion. Sarezko kaiola batean, *Beckham* indioilar bustiak, bere isats loratuaren begiari so egiten zion etengabe. Aldamenean, berriz, *Flipper* eta *Victoria* ostruka bikotea sesioan, elkar mokoka ari ziren.

Bihotz formadun urmael batera iritsi zen, zeinak erdi aldera amoro zein suizida-mutil erromantikoentzako zubitxo bat zuen. Urmaelaren albo batean gingko baten gerizan, burdin forjatuzko kioskoa ageri zen. Bertan babestu behar izan zuen berriz ere. Urmaelaren erdi-erdian marmolezko ninfa bakartia anfora bat eusten ari zen. Ur-xafla bat zerion anforari. Nenufare arteko ur berdatsetan arraingorriak antzeman zitezkeen. Ahate zein antzarak batetik bestera zebiltzan, epel. Zisne beltz bakarti batek amorosen zubia iragan, eta akanto landare artean galdu zen. Zisne beltz horrengan islatu zuen Ardeliak mimetismoz, nerabezaroan jasandako gaixotasuna. Ezinbestekoa zen alderaketa: eskizofrenia, zisne beltz bat zen.

Kiosko ospel horrek oroitzapen txarrak loratu zizkion. Eta damua. Denis Delamer zinegotziaz oroitu baitzen, Ôchrelandeko Udalean aisiaz arduratzen zen basapiztiz. Otso-gizonen azpi-espeziearen zein katebegi galduan egongo

zen katalogatuta? Ai! zenbat gogaitzen zen duela bi aste laneko afari baten ondoren, ardo eta arrosak bitarteko, harekin oheratu izanaz. Hainbeste gorrotatzen zuen zozo lepamotz ipurdi guri hura... Etsaiarekin oheratu eta handik bi egunetara, gauza benetan garrantziko esan behar ziola-eta, kiosko horretantxe egin zion hitzordua zinegotziak. Zer esango eta, ero moduan maite zuela: *Royal Club Óchreland, bere bihotzeko futbol taldea, seme-alabak eta andrea bera baino askozaz ere gehiago*, hurrenez hurren. Haren hats lerdetsua usain zezakeen oraindik. Ardeliak ezin zuen sinetsi entzundakoa. Ez zuela erlaziorik nahi erantzun zion Ardeliak: *ez dut zurekin ezer jakin nahi!* Eta bertatik ihes egin zuen lasterka. Denis Delamer zinegotziak atzetik jarraitu zion. Eta Ardela harrapatzerik ez zuela ohartzean, arnasestuka: *Izango duzu nire berri, putzaharra!* oihukatu zion.

Eta, ondo izan ere. Hurren egunean kaleratze eskutitza mahairen gainean topatu zuen Ardeliak. Eta horrekin batera Udal Zoologikoa ixtera zihoanaren txostena, Denisen beraren sinadura zekarrena. Errealitatearen ur azalera itzuli zen Ardela. Mukiak gartsu atera eta tu egin zuen indar guztiez. Uztaitxo biribilak eratu ziren urmaelean. Zein barrurekin helaraziko zien orain mezu hura bere kargu ziren Udal Zoologikoko hamasei lagunei? Zein barrurekin, zoologikoa bere bizitzaren ardatz bezala zeukan Matias zaintzaile bihozberari? Edo, tarteka sendagarriak bere poltsikotik ordaintzen zituen Jacob Merinni albaitariari? Ez zuen Ardeliak egoera aproposik topatzen, ezta indarrik ere, berri txar hura lankideei adierazteko; nahiz eta aldez edo moldez, susmoa denen baitan zegoen. Kioskotik irten zen.

Orbel lizunduko bidea jarraitu zuen, beti aldapan beheara, eta, "Óchre-Park" jartzen zuen neonezko sarrera nagusira ailegatu zen. Burdinazko hesi zorrotzeko ateari giltzarrapoa ezarri eta, Udal Zoologiko ospelaren domeinuak utzi zituen.

Pentsakor jarraitzen zuen Ardeliak: Udal Zoologikoa ixte aldera, *Quincey, Spectra* eta beraien kume *Firefall* jirafekin zer gertatuko ote zen galdera absurdua egin zion bere buruari. Horretan erreparatu egin ote zuten Udaletxeko buru argiek? Gainontzeko animaliak bai, horiek inguruko zoo edo zirkuetan banatu ahal izango zituzten. Jirafak, ez. Altuera horrekin inora garraia ezin zitezkeenez: zoologikoan hil artean utziko ote zituzten? Ala, ja eta bertan akabatuko zituen Udaltzaingoko patruila batek? Eta, jirafak aske utziz gero? Ardeliak azken hipotesi hura zuen gogokoen. Hiriko kale, etorbide eta parkeetan zehar imajinatu zituen jirafa gaizoak, nora ezean, mantso eta triste. Txinatar itzal isilak bailiran.

Bide zidor lupeztua jarraituz, gas fabrika zaharreko adreilu gorritzko tximinia ikuskatu zuen. Fabrika zeharkatu, metalezko eskailera xume balantzari bat gainditu, eta, trenbidea iraganez, aldameneko bideari ekin zion. Aterperik gabeko tren geralekutik igaro zen. John Saylesen *Silver City* filma iragartzen zuen panel handi batek. Argazki gogorra zen: milaka arrain pozoitu laku baten ur azalean. Beltz etorkin multzo bat auzoko trena noiz iritsiko zain zen, euren kartulinazko etxe umeletara noiz iritsiko amesten. Hats lurrindua zerien eta bakardadearen sunda agerikoa zen haien begirada odolezkoetan.

Baita Ardeliarenean ere.

Semaforoaren argi berdea itxaroten ari zen Ardelia zebra-pasagunean. Etxera joan eta afari goxoa prestatuko zuen. Eta, pixpatuta ohean sartuko. Sudur-hegaleko uztaitxoaren inguruan hazka ari zen. Besteaz, berriz, zerbaiten bila ari zen poltsan. Gizon aterkidun bat geratu zitzaion aldamenean. Ardeliarengana zuzentzen zuen gizonak begirada aldian-aldian. Urduri jartzen hasi zen Ardelia. Halako batean:

JON GALLIMORE. —Barkatu, baina, mariorratz bat sartu zaizu blusaren zirrituan.

ARDELIA. —*Say-What?*

JON GALLIMORE. —Bai, Pisanello anderea mariorratz, bat; libellula.

ARDELIA. —Bai zera... Aizu, eta nola dakizu nire izena? —aztoratuta.

Jon Gallimore deitu diogun gizonak bular-aldea seinalatu zion hatzaz. Ardeliak, bertara begiratu zuen, lotsaz. Laneko txapatxoa kendu gabe zuela ohartu zen. 'A. Pisanello: "Ôchre-Park"-eko *Arduraduna* ipintzen zuen txapak. Berokiaz estali zuen. Aurpegi gorritu zen. Australiazko azentu markatuaz hitz egiten zion Ardeliak, urduri zegoenetan egiten zuen bezala. Jon Gallimorek aterkiaz babestu zuen Ardelia.

Ataka estrainio horretan ezagutu zuten elkar.

Eta nola norabide berbera omen zeramaten bai batak zein besteak, hizketan hasi ziren eta bideak iraun zuen hamar minutuetan, isildu gabe aritu ziren honetaz eta hartaz; eta, biek ala biek aurreikusitako jomugatik urrunduziren, satellite galduak bezala; hain ziren gustura.

Hiri erdiguneko janari-denda dotore batean geratu ziren halako batean. Erakusleihoak, arte modernistako beirate multikolorea zuen: karikaturazko bikotea kopa bana edaten ari zen eta, *Porto* eta *Sherry* etiketadun botilak ageri ziren. Eta, kimika eta patuaren konbinazio estrainio batengatik, bai batari zein besteari, bihotzeko ezkatat dirdaitu zitzaizkien. Nork bere erara sentitu zuen pasadizo hura: Jon Gallimorek, gau ilunean marinelak ikusi ohi duen ardoraren dirdira hauteman zuen. Ardeliak, berriz, brontzeko aingeru baten fereka; hozkirri suabe bat. Eta, ezinbestean, nor bere bidea hartzera zihoan bidegurutzean, ia arnasarik gabe:

JON GALLIMORE. —Nahi al duzu zer edo zer hartu? —galdegin zion.

Ezustean harrapatu zuen neska. Ez zuen gau hartan inorekin ezer ospatzekorik; nahiz eta egun seinalatu izan. Ez zion ez ezetik ez baietzik erantzun.

JON GALLIMORE. —Ondo da.

Etxe sail parez zeharkatu zuten ia isilpean, batak besteari zer esan ongi pentsatuaz. Tindategi bateko erakusleihoko maniki biluzien erdeinua, *Happy Noodle* txinatar bistro adiposoa, edo bolaleku argitsu bat iragan zituzten. Euria gogor hasi zuen berriz ere. Jonek Ardelia eskutik hartu eta inguruan zen *Catsplay* tabernara gidatu zuen, lasterka. Urteak ziren Jon hara joaten ez zela. *Hamar mila urte-edo*, esan zion, Ardeliak harriduraz eskua askatu bezain laster.

Aspaldiko garai batean happening kulturalak ospatzen zituztela gaineratu zion, Ardedia sar zedin tabernako atea eusten ari zen bitartean.

Kautxuzko eskailera errekautxutatuak jaitsi zituzten. Gaztetxoez beteta topatu zuten taberna, gehienak kaskamotz, militar bota eta fular palestinarrez jantzita. Aurpegi zurrinak zituzten, groteskoak. Arrotz moduan hartu zituztela nabaritu zuten biek berehala. Polizia sekretuak bailiran bezala. Norbaitek txahala bota izanagatik, lurra zerraustua zegoen. *Ez da erabaki aproposa izan taberna horretan sartzea*. Damu zen Jon Gallimore. Erre-sunda sarkorra zegoen.

Erabat blaituta ziren biak. Tabernaririk ez zen ageri. Burusi zahar batez bildutako makina tabako-saltzailea gizon bik kanpora zeramaten gurditxo baten gainean. Tabernaria behar zuen gizon batek. Gogoan zuen tabernaria. Bebo. Urteen buruan askozaz ere gizenago eta burusoilago zegoen, galtza bakero taila txikiekin eta tiranteez jantzita. Ez bide zuen Bebok Jon ezagutu. Bazirudien, hainbeste tabako barnean edukiagatik, bihotzekoak eman ziola tabako-makinari. Horixe esan zion Jonek Bebori ozen, jendeak entzuteko moduan. Ardeliak izan ezik, ez zuen inork barre egin. Eta Ardeliak txistea entenditu ez zuelako egin zuen barre, badaezpadan. Irri egitean elutxak azaldu zitzaizkion, are gehiago ederragotu zutenak. Tabako paketea atera zuen Jonek larruzko txupa maiztutik.

Hamar minutu igaro ondoren, eroso sentitzen hasi zen Ardedia. Hitz egiteko gogoaz zen. Norbaitengan barruak husteko grinaz. Hitzak kolpeka irteten zitzaizkion hortzetatik, polizi torturatzaille baten takigrafotik bezala; hitzak askotan pentsamenduak baino azkarrago mailukatuz. Tabakoa erre eta erre ari zen, demonioak hartuta. Jon Gallimorek adi-adi entzuten zion. Eta, garagardo kankarroak bidelagun, konfiantza hartuta, elkarri bizitzako lehenengo gezur tikiak esan zizkieten.

Eta Ardeliak mariorratz espezie jakin batzuetan, arrek erruten zituztela arrautzak eta ez dakit zein beste kontu esaten zizkion arren, Jon Gallimoreri hitz horiek belarrian irrist egiten zieten. Hain zegoen txundituta Ardeliaren polinesiar kutsuko begi gris-berdeak ehizatu nahiez. Begi-zulo poltsak zituen arren arrunt ederrak ziren. Eta Ardeliari begiratzera ausartzen zen aldiko, ñabardura berri bat jaso eta luma berri bat gehitzen zion haren edertasunari. Ile adats motza atzera orraztu eta haren belarri tikiak agertu zenean, galdera ikur bat azaldu zitzaion; eta fa klabea beste batean; hain zegoen gustura.

Komunera joan zen Ardedia. Hormak maitasun eta gorroto, aurkako eta aldeko hainbat pintadez zirinduta zeuden. Gustura ari zen gizon horrekin. Aspaldian ez bezala. Bere buruaz seguru zirudien. Esango ote zion gizon ezezagun horri, lanetik botatzekotan zirela? Ausartuko ote zen? Zer axolako zitzaion baina, titietara gehiegi begiratzeko zion gizon hari? Ez. Ahaztu penak. Ondo pasatzera behartuta zegoen. Euforia apur bat bazuen. Poltsatik sakelakoa atera zuen, badaezpadan. SMS mezurik ez. Oraindik ez. Ordu aldaketagatik izango zen seguru aski. Izorra zedila Andy Moore! Azkenaldian *Andy No-More* deitzen hasi zitzaion. Neska gogorrarena egin eta SMS mezurik ez zion bidaliko. Hari zegokion deitzea. Zer uste zuen hantuste horrek? Ispilu ugertuak, kartoizko aurpegi zurbila erakutsi zion. Une batetik bestera hilekoa jaitsiko zitzaion. Ilea konpondu zuen, besapeak usaindu, eta ezpainetako kolorea berrukitzen hasi zen.

Jon Gallimore *Catsplay* tabernari begira geratu zen bitartean. *Nola aldatzen diren gauzak kamarada*. Garai batean klandestinitatekoek erabiltzen

zuten, bilera ezkutuak egiteko. Egun, musikak nekez uzten zuen hitzik egiten eta jendeak orro egiten zuen. Koadro bat ageri zen. Hura izango zen tabernak Jon Gallimore hara joaten zen garaietatik gordetzen zuten objektu bakarretakoa. Gizabanako batzuen imajina lausotuak ageri ziren koadroan; manifestari batzuk zentral nuklear baten aurka-edo protestan. Koadroa tabernako kearen erruz, erabat lizunduta zegoen eta erredura zuloak ageri zituen. Gazte ile motz batek, halako batean, koadroaren zuloetako bat profitatuz, zigarrokinak jaurti zituen. Barrezka egin zioten lagunek.

Apustu egingo zuen Jonek Dora Maggo margolariarena zela koadro hura. Hurreratu eta Doraren sinadura zekarrela ohartu zen, 78koa. Goxoa jarriko zen Dora koadroa egoera hartan ikusiko balu. Itzuleran, gustura kontatuko zion Ardeliari, Dora Maggo pintoreari iaz gertatutakoa: gazte batzuek etxera sartu eta molotov-koktela bota ziotela, bertan gordeta zituen koadro guztiak erreaz. Ia etxea erre ere. Baina ez zuen horrenbesterako konfiantzarik Ardeliarekin. Ez zitzaion gainera interesatuko. Tabernariarengana gerturatu zen Jon Gallimore. Beboekin hitz pare bat gurutzatu eta eta karteratik sos batzuk atera ondoren, koadroa hormatik askatu eta jaso egin zuen. Gazte iraultzaileen atezu begiraden aurrean. Bebo isilik; lotsatuta bezala. Jon Gallimore bere lekura itzultzerako, Ardela eserlekuan jarrita zen. Irribarre zabalaz. Koadroa ikustean aurpegi harridura keinua egin zuen.

Ardeliak italiar jatorriaz aipu egin zionean, Pisanello abizenak, errenazimenduko pintore handiaren gainean aipu bat egiteko pasada eman zion Jon Gallimoreri. Antonio de Pisano delakoaz, hain zuzen, zeinak animalien erretratu gordin eta izugarriak egiten omen zituen. Ardeliaren gogoa ordea, askozaz urrunago zegoen; Australian. Andy bere alabaren aitarengan. Bizitzako amodio bakar eta esker txarrekoarengan. Eta, bere sakelako telefonoak kamerarik balu, Andy oso jeloskor jarriko zela ohartu zen, bera ez zen beste gizon batekin zegoelako. Damutzen hasi zen. Barneko ahots batek, *ez duzu bide hura hartu behar* esaten zion, behin eta berriz, *Andy hor duzu. Agian, oso agian, bihotzaren zoko batean maitasun apurren bat badizu. Ihes egizu tabernatik*. Une hartan, Tintorettoz ari zen hizketan Jon Gallimore.

Berriz ere urazpira eraman zuen Ardeliak gogoa, denboraren ur uherren putzura. Perth hiriko Café Ritazza-n egongo zen Andy. Droga zale ohien errehabilitazio programa hura betetzen. Ordu gutxi barru irekiko zuen kafetegia. Ez zuen jada harengan federik. Oroitu zen nola drogazaleak baino gezurti handiagorik ez zela esan zion iaz gizarte laguntzaileak. Kokainak galdu zuen Andy. Eta Ardeliaren gaixotasunak. So labur bat eman zion sakelakoari disimuluz. Rubens zuen orain hizpide Jonek. Gorputza aurrera eraman zuen, sakelakoa berriz poltsan sartzeko; agian Jonengana gehiegi gerturatuz. Musu bat lapurtu zion Jon Gallimorek masailean.

Are gehiago nahastu zen Ardela. Gizon horrekin elkartu izanak, ixtera zihoan Andyren maite-zauria ireki zion. Errieta egitekotan izan zen, handik lasterka alde egiteko ere bai, baina, mariozaren koskaren pozoia ondo barneratua zuen ordurako. Espresiorik gabeko aurpegi zurbila erakutsi zion. Poltsa hartzeko imintzioa egin, aulkitik jaiki eta tabernatik irten zen, isilpean. Jon Gallimore atzetik.

Bost minutuz, bi metroko aldeaz ibili ostean, Pierre de Coubertin Baroiaren Hiribidea eta Charlie Rivel Pailazoa Kaleak gurutzatzen ziren marmol harrizko etxebizitzaren aurrean geratu ziren. Ez atzera ez aurrera, jariohun hobi baten

aurrean. Banatzera zihoazen. Mugiezin jarraitzen zuten, azken segundoak dastatu nahi izango balituzte bezala. Elkarri begira-begira; mela-mela. Hain gertu ziren bata bestearengandik, non begiradak urtu egin zitzaizkien.

Eta elkar musukatu zuten pasioaz, denbora mugagabe batez.

ARDELIA. —Zu etxerako.

-4-

Ôchrelandgo kaisaldean, harrizko dorretxe bateko ganbaran bizi zen Ardelia. Eliza neogotiko trakets bati zegoen atxikia. Harearri kamutsezko eskailerak igo zituzten; bost pisu orotara. Txirrina jo zuen Ardeliak, urduritasunez. Etxe horretan bera eta bere katuaz gain, beste inor ez zela bizi ohartu gabe.

ARDELIA. —Zein tuntuna...—esan zion Joni irribarre urduriaz eta atea ireki zuen.

Urpekontzi-zapatak erantzi eta oinzola beratuak agertu zitzaizkien; anfibioenak bezalakoxeak. Hotz-hotzak zeuden sarrerako baldosak. Espartina loreduak eskaini zizkion Joni. Euriaren tantak aditzen ziren, teilatupean. Korridore estuan itogin bat topatu zuten. Azpila ezarri zuen Ardeliak. Beste itogin bat aurrerago; trapu zahar bat, ezarri zuen bertantxe. Butano-botiladun berogailua piztu zuen. Dora Maggoren koadroa inguru horretan laga zuen, apur bat lehor zedin.

Hezetasunezko orbanak nonahi antzeman zitezkeen. Sartu eta berehala, metro karratuko komuna zegoen. Ezkerretara, berriz, baldosa zuriko sukalde proto-sobietar bihozgabea; su ekonomiko, mikrouhin eta guzti. Harraskaren gainean, katu pikarta bat zegoen etzanda. *Bruno, gizon hau Jon Gallimore da*, esanez aurkeztu zion katua. Lurrera jauzi egin zuen katuak ezaxolaz eta sukaldetik irten zen. Sukaldeko balkoiaz gain, etxe hark ez bide zuen gainontzeko leiho edo balkoirik.

Afaria prestatu bitartean salara joateko eskatu zion Ardeliak. Gela iluna zen. Triangelu formako sei hutsune baino ez zeuzkan kalera begira. Kanpineko mahai bat erdian. Larru marroi ilunezko sofaren ondoan futon erako ohe bat ageri zen.

JON GALLIMORE. —Ez dago batere gaizki etxe hau —esan zion, konplimenduz, Ardeliak eskainitako toaila umel batez ilea lehortzen ari zela.

ARDELIA. —Hain daude garesti etxeak hiri zikin honetan... —erantzun zuen zuen komun barrutik, txiza hondakinen tantak lehortzen ari zela.

Afaria prestatzen hasi zen Ardelia. Sofa maiztuan eseri zen Jon, apopilo komunista baillitza. Telebista ttiki bat piztu zuen. Soinurik gabe jarri eta kateen erruleta-gurpilari eragin zion: lehenengo katean, musulmanak ostiraleko errezoan ageri ziren, bigarrenean, 2-3-7-12-34-47 zenbaki konbinaketak artximilioidun bihurtu zuen Pretopoliseko brokante aguretu bat. Bosgarrenean, gazte trakets batzuk sesio bizian ari ziren, kameraz betetako luxuzko etxe batean; eta hamargarrenean larrua jotzen ari ziren akuriak bezala, Rocco eta bere koadrila. Gainontzeko kateetan iragarki merke-merkeak. Aspertu zen

telebistaren aurrean egoteaz eta sofatik jaikita, sala aztertzen hasi zen. Gehiegi bizitako altzariez atonduta zegoen. Altzari ilun eta tetricoetz. Mesillatxo baten gaineko loreontzi batean, oihalezko alkatxofa batzuek zeuden, urrezko puntiladunak. Alokaturako etxea izango zen. Hegazti herrari ugariren pausaleku izandakoa.

Tximeleta, eskorpioi eta alakran disekatuen markoak topatu zituen hormetan zintzilik. Aldamenean portzelanazko maskara veneziar mokoduna. Sofatik jaiki eta aurpegian ezarri zuen maskara hura. Zein hotz zegoen. Bere lekuan eskegi zuen berriz ere. Arasetan liburu batzuk zituen Ardeliak: animalien munduari buruzkoak ziren gehientsuenak, baita enpresa-kudeatzekoak, esoterikoak, Paulo Coelhoen obra osoaren edizio dotorea eta Clarissa Francisen eleberri-arrosa batzuk ere. Kortxozko oholean, txintxetaz iltzatutako argazki bat zegoen: Amazoniako indigena bat ageri zen pikotxean. Basurde kume bati titia ematen ari zen. Titi luzeak zituen indigenak, ia lurreraino jausten zitzaizkion. Argazki horrek izugarri hunkitu zuen Jon. Aldamenean Ardelia gazteago baten argazki markoduna zegoen. Ile motz-motzarekin ageri zen. Motosdun neskatxa bat zuen beso artean. Parke akuatiko batean-edo ziren, bainu jantzian.

Une horretan agertu zen Ardelia, kea zerion azpil bat eskuetan. Ezustean harrapatu zuen Jon.

ARDELIA. —Nire alaba da. Kitty —esan zion naturaltasunez. Kanpineko mahaiaren gainean laga zuen azpila. Eskuak mantalean lehortu zituen eta sukaldera itzuli zen berriz ere. Jon Gallimore sofan eseri zen berriz ere.

JON GALLIMORE. —Zein leiho arraroak, ezta? —esan zuen salako triangulu formako hutsuneei begira, ozen, Ardeliak entzun zezan.

ARDELIA. —Etxe hau, duela oso gutxira arte usategi izan da. Joan den irailean erosi nuen. Barregarria badirudi ere, tarteka usoak sartzen zaizkit, usategi izandako etxe honetako oro; mina baitute.

Leihoen inguruan loreontzi batzuek ziren. Haiei begira ari zela, Ardelia azaldu zitzaion, ardo gorri kopa banakin.

JON GALLIMORE. —Ederrak dituzu landareak —esan zion konplizitatez begia kliskatuz, marihuana landareari beha, bereziki.

ARDELIA. —Bai. Tarteka usoek narrastuko ez balituzte...

JON GALLIMORE. —Pozik jarriko dira, emakumea...

ARDELIA. —Topa egin dezagun, beraz usoengatik! —greziar tragedia batean bezala deklamatu.

JON GALLIMORE. —Usoengatik —errepikatu zuen, lotsatuta.

Zurripada bat eman eta gero, sukaldera itzuli zen Ardelia, eta ozenki hitz eginez:

ARDELIA. —Ez dut nik usoen aurka ezer ere ez. Beraien etxea izan da eta beraien etxea izaten jarraituko du. Usoen *rupa-rupa* erlatsek esnarazten naute goizero. Atsegin ditut usoak.

JON GALLIMORE. —Zein kuriooa...

ARDELIA. —Tira, goazen afaltzera.

Barazki zein espeziaz atondutako arroza eta txerri-txuleta afaldu zituzten, Lambrusco ardo botila pareaz bultzatuta. Eta, izozkailuaren barrunbeetan galdutako *Kontessa* markako tarta izoztuari akabera eman zioten. Kafe kikara bat ere ia hustu zuten. Mihi irristalariez bustitako solasaldi tai gabeari ekin zioten ondoren, edozein huskeria gaitzat hartuta. Hitz egin zuten, esate baterako, AEBko hauteskunde ospatu berriez, Õchrelango probintzi usaineko hantustekeriaz, edo, biek bertakoak ez izaki, bertako adiskideak egiteko zailtasunaz edo hobekiago, ezintasunaz. Piztuta jarraitzen zuen telebistak; tarteka begiratu bat ematen zioten. Informatiboak: Jasser Arafat lider palestinarren irudiak ageri ziren. Enegarren aldiz hitzen ari zen (edo hilik zegoen) Parisko ospitale militar hotz batean. *Zer pena*, esan zuen Ardeliak lañotasunez eta sukaldera jo zuen. Harrikoa egiten hasi zen.

Laino artetik, ilargi bete gorritza agertu zen, ehiztari-ilargia deitzen dutena; eklipse antzeko bat. Ilargi bete horren argiak, leiho triangelatuetatik barneratu eta ohealdea argizatzen zuen, suabe. Artega zegoen Jon Gallimore; *Pulp Fiction* filmean Travoltarena egiten, hau da, etxe horretatik alde egin ez egin duda hamletiarrean. Bere burua zuritu nahian, estrategia baten bila. Ardelia azaldu zitzaion halako batean. *Tira, oraindik jantzita?*, galdegin zion. Argizari handi bat zekarren, elizetakoen modukoa. Hura piztu eta beira gorritzko zilindroa ipini zion gainean. Eta kasette bat aukeratu eta gero, urazpiko musika esoteriko bat ipini zuen. *Cinnamon* ipintzen zuen makilatxo suanda-eragileari su eman eta salako argia itzali zuen. Orduan zapuztu ziren Jon Gallimoren ihes egiteko planak.

Martsupialioei buruzko entziklopedia koloretsu batetik, marihuana sakatu eta, txirri-txarraka, kalamu jamaikanoa prestatu zuen. Zigarro hibridoa piztu eta Joni eskaini zion. Eta, Joni bizkarra emanez, erdizkako iluntasun horren pean biluztu zen Ardelia. Ez zekien Jonen non sartu. Dar-dar egiten zieten hatzek. Kulerokoak lurreratzean, konpresa odoldua azaldu, eta *Shit!*, entzun zen. Hura jaso, ohetik jaiki eta, komunera joan zen Ardelia. Jon Gallimore sabaiko hezetan orbanen izartegira begira zegoen, lotsatuta. Ardelia urrutiratzean, begirada luzatu eta ipurmasailean nerabegaroko amodio baten tatuai zeramala ohartu zen. *Andy forever* ipintzen zuen letra gotikoez Ardeliaren gorputzaren antipodetan.

Dutxako alkatxofaren hotsa aditu zen minutu luze batez. Etengabeko euri hotsa kolpeka ari zen teiltapean. Hotz sentitu zuen Jon Gallimore biluzterakoan. Eta umeltasuna. Erabatekoa. Ohean sartu zen. Logelara itzuli zen Ardelia airoski. Titi ttiki trinkodunekoak zen, buru handi eta zuztar luzekoak. Ondo lehortu gabe, gorputzean barreiatu orin eta tantoek artxipelago galduak ziruditen. Aldaka apur bat zabalak zituen; eta gingko hosto baten formako potorroa.

Ohe japoniarren mihiseen barruan gordeta zen Jon, koala pelutxe handi baten alboan. Maitasun aitortze eskutitz bat, kartazalean baino kuxkurtuago. Ez zegoen lurraren mailako futon horretara ohitua. Mairidirepean elkarri begiratu zioten irribarre urduriaz, biluzik oheratu diren anai-arreba koxkorak bezala. Eta kalamua isilpean amaitu eta gero, sator moduan, itsu, elkarren gorputzak esploratzen hasi ziren. Bi gorputz arrotz, elkarri oinak kateatu eta musuka. Ttiki, borobil, trinko eta hotz nozitu zuen Ardelia. Sendo, ziur eta bihozbera hauteman berriz Ardeliak bestearena. Eta zoologikoko babuinoak bezain iletsu.

Titi zuztarrak milizkatu, inguratu, hozkatu, xehatu, zanpatu eta dastatu zizkion. Salako argazkian, indigenaren titia edoskitzen ziharduen basurde-kume lohia sentitu zen. Ardeliak estasian zirudien, Jon Gallimorek endelekatzen ez zituen hitz larri solteak murduskatuz. Zakil itzartua bere hankartera bildu eta kondoia ipini zion Ardeliak. Kostata barneratu zuen zakila emetasunaren itsaso zahar estutik. Eta, maria eta nikotina asunez hanpatutako hauspoek, oxigeno litsen bat gorde zietenez, punpa eta punpa, arrosa koloreko maskor erraldoien artxipelagora ihesi joan, eta, gauerdia magal nenufarezkoan, larruarekin soinu jo zuten.

Gorputz anfibio bi, euriaren zilarrezko atabal soinu pean bat eginik.

-5-

Lo seko geratu ziren gorputz eriak. Goizeko ordu biak izango ziren, hain ozenki aditzen zen aldameneko elizako kanpaia erratuta ez bazegoen, bederen. Elkar lehengo aldiz maitatu zuten bi gorputzak, izerdi-patsetan ziren. Kateatuta.

Ardelia esnatu zen lehenik. Begietan putz egin zion esan zedin, eta lotzen zuten besoek aske utz zezaten. Ederra zen bera baino askozaz handiagoa zen gizon iletsu hura. Putz eta putz Ardelia. Katu-jolasean. Begi irekiekin, lo jarraitzen zuen Jonek irribarre egin zuen. Haren begietara beha ari zela, hotzikara sentitu zuen Ardeliak, sentipen txar bat. Gau zurian, sute-ondoko baso finlandiarra, zerbait ezkutukoa, erraz esplika ezinezkoa, eta era berean, erakargarria. Esnatu zen gizona, halako batean.

Ardeliaren besoetatik askatu zen Jon Gallimore. Jaiki egin zen, Korapilodun kondoi puztua, bezperako afariaren hondakinekin batera zakarontzian husteko asmoarekin. Begi bat zuen irekita Ardeliak, lo zegoenaren trazak egiten. Bruno katuak bezala. Zaldi baten moduko zakila nabaritu zion, barrabilak berriz, mizpira zahar dilindariak. Barregura tuntuna eman zion Ardeliari. Jon Gallimore komunera joan zen. Bertako arasa batean, milaka botikaren artean Prozac, Aloepidol eta beste flasko ugariaren artean, Carpetodine, hurren egunerako pilulak zeuden. Aspirina kaxa topatu eta pare bat hartu zuen.

Itzulerakoan, lurrean eseri eta usategiko leihotik begira jarri zen Jon. Alde Zaharreko teilatu babiloniarrek antzeman zitzakeen: multiforme eta irregularrak. Tarteka argiren bat piztuta. Urrutian, Ôchre ibaia itsasoratzen zeneko pasealekuaren farolen argia antzematen zen. Motozikleta petral baten burrunba tarteka; bihotza uzkuratzen duen betiereko anbulantzia sirena edo zakurren zaunka galduak baita ere. Lanak amaituak zituen; hazia bota zion gustuko zuen neska arraro hari. Ondorenean, jantzi eta etxera joango zen. Ardeliarengana itzuli zuen begirada. Beste zigarro hibrido bat prestatzen ziharduen ohandean. Haren aldamenean eseri zen. Zigarroa piztu zuen Ardeliak, eta, begiak erdi itxita, kalamuaren keaz minduta:

ARDELIA. —Pentsa, ezagutu eta berehala oheratu gara. Horrelako bihotzerreak, filmetan baino ez dira gertatzen, ezta? Ez uste gero, neska erraza

naizenik –esan zuen begirada maltzurraz. Bruno katuari sabela kilimatzen zion, lizunki. Aztarrika egin zuen katuak.

JON GALLIMORE. —...

ARDELIA. —Oso erraz horietakoa baizik. *Kar-kar-kar* —katua bota zion gainera. Ia zauritu zuen atzaparrez.

JON GALLIMORE. —Bada, esan duzun hori egia bada, hau da, horrelakoak filmetan gertatzen direla eta zerorri neska erraz-erraza zarela, ba neroni, zine-zuzendaria nauzu —esan zuen zigarroa hartu eta Bogart erara atxikiaz.

ARDELIA. —Hara bestea! *Kar-kar-kar* —Eta Brunori muin eman zion muturrean, eta katuarekin buelta osoa eman ondoren, bazterrean laga zuen.

Barrezka eman zituzten hurren lau minutuak. Amaiera aldera, masailean min eragiten zuen barre urduriaz. Eta, Jon Gallimore hura egiaztatzen saiatzen zen aldiko, hau da, bere denbora librean laburmetraiak burutzen zituela, barrezka lehertzen zen Ardelia eta barregura kutsatzen zion Jon Gallimoreri.

Apur bat lasaitu ziren batean, Jonek garrantzizko zerbait esan nahi ziola igarri zuen Ardeliak, serio antzean ipini baitzen. Ez zuen Ardeliak gau hartan erretolikarik nahi. Egia esateko, berdin zitzaion aurrean zuen gizon iletsu horren bizitza. *Serial killer* bat zela esan izan balio bezala. Bost axola. Edozeinekin oheratzeko ohitura horrek horrelako sorpresak ekartzen baitzizkion. Azkena, oso urrutira joan gabe, Denis Delamer zinegotzi putasemea.

Filmen kontu horren harian, aitona Furioren berri eman zion Ardeliak. Aizkolari izandako hark, Piepolitik Australiara eginiko bidaiaz, Hong Kong eta Filipina Irletan eta eginiko eskalaz eta beste. Nola aitonak, Australiara iritsi eta handik gutxira, *Rooney B. Sugar* delako boxeolari kaxkarrak, *Killeroo* delako kanguruaren aurka jokatutako boxeo konbatea errodatu zuela kontatu zion serio antzean. Jonek sinistu ez zuenaren aurpegia ipini, eta, agian kalamua erretzera ohituta ez zegoelarik, neskaren gezurra eta kalamuaren kea, biak batera kontrako eztarritik sartu zitzaizkion. Eztulka hasi zen, ero moduan.

ARDELIA. —Benetan... Egunen batean erakutsiko dizut film hura —ziurtatu zion.

Laster damutu zen Ardelia Jon Gallimoreri *egunen batean* esan izanaz. Beste egunik ez zelako. Aldikako sexu harremanak, tristeziaren aurkako plazebo-pilula bezala zeuzkan Ardeliak: *ttaka-ta-tto eta kitto*. Hura zen azken urte horietan bere leloa. Gizon horrekin loturarik ez zuen nahi. Are gehiago, inongo gizonekin ez zuen loturarik nahi. Ez zuen gizon hura ezagutzen. Ez zegoen ziur gustatzen zitzaion ala ez. Arestiko euforia hura gainera, amatatzen ari zitzaion.

Eta bere gogoak, usategiko leihotik ihes egin eta, umea zelarik, gurasoen Brisbane Road-eko etxeko ganbarako terrazara hegan egin zuen. Eta leiho hartatik begira zintzilikatu zuen gogoak. Nola inularretan, ardura zuelarik, zigarroak erre eta erre, orduak egiten zituen eguzki sartzeari begira. Artean bizirik zituen gurasoak. Baina haiek ere aspaldi zendu ziren. Eta handik gutxira nerabezaroaren hondarretan, haurdunaldia, eta Kitty alabaren jaiotza — ezusteko eder hura—. Harik eta, Kitty izan eta gutxira, eskizofreniaren zisne beltzak ur-putzu ilun eta sakonetara eramane zuen arte.

Tokitan zegoen Ardeliaren adimena, infinitura zintzilik, eta, denbora uherrari eskuaz eraginez. Urteetan aurrera eginda zegoen arren, aire-airean bizi zenaren ustea zuen. Nahiz eta eskizofrenia momentuz kontrolpean zuen, zisne beltz hura itzulinguruka ibili ohi zela ongi bai ongi zekien. Edozein egunetan berriz ere ager zekiokeela, hain zuzen. Bien bitartean, Kittyren zaintza epaileak aspaldi kenduta, beste familia bati eman zioten. Kittyren aita zen Andy Moore berari ere, drogekiko zuen menpekotasunagatik, eskuetatik kendu baitzioten. Epaille putaseme batek umea zaintzeko ezgauza izendatu zuela-eta, "Familia katoliko eredugarri baten esku onetan" utzi zuten alaba. Hori esan zion behintzat Pertheko zentro psikiatrikoko gizarte-laguntzaileak.

Eta psikiatrikotik irten eta gero, Sydneyko Zoologikoan lantxo bat lortu zuen Ardeliak. Urteen buruan gora egin zuen, harik eta martsupialioan saileko arduradun izendatu zuten arte. Eta azkenik, atzerrian edozein lan onartu eta Australiatik frantses-erako ihesa...

Agian, ezinbestean bere patuari etengabe ihesean zebilen zisne beltza zen Ardelia. Agian, usoa pasa eta sarea hedatzen eman zuen bizitza osoa. Agian antipodetara ihesi joan zen, aitona Furiok, zegoen lekutik aingiraren moduko itzulerako bidaia egitea eskatu ziolako. Agian berandu zen, eta atzera biderik ez zen. Agian dena zen denbora galdua, dena zen denbora uherra eta denbora berririk ez zegoen. Agian, agian, agian. Negarrez hasi zen Ardelia.

JON GALLIMORE. —Zer duzu?

ARDELIA. —Ez, ez da ezer ere ez —erantzun zuen. Hotzikara sentitu zuen, arrats hartan zoologikoko arboladian bezala, itodura—. Besarka nazazu eta isildu.

Elkar besarkatu zuten une luze batez. Ardelia askatu zen Jonengandik. Kleenexaz mukiak kendu zituen. Eta:

ARDELIA. —Badut amets bat —isilune luzea, esatekoa ongi pentsatuz bezala—. Badut amets bat, askotan errepikatzen zaidana. Eta amets horren arabera, egunen batean uso mezulari bat etorriko zait. Uso zuria magalean pausatuko da, hemen, eta oinean lotuta dakarren mezua askatuko diot. Usoak berri onen bat eskainiko dit, munduko beste parte batetik. Eta zoriontsuago izango naiz. Aspaldidanik errepikatzen zait amets berbera. Baina, bai zera... Bide okerren bat hartuko zuen usoak, aurkako haize korronteren bat. Auskalo.. —negarrez hasi zen, berriz ere.

Jon Gallimorek eskua bermatu zion sabel azpian. Beste eskuaz aurpegia laztantzen zion. Bere ondoan geratuko zen gau osoan. Lurrera begira zegoen Ardelia, betilun. Malko gazi-gozen ondoko irribarre ospela egin eta musu eman zion Jonek bekokian. Irri egin zuen Ardeliak. Tristurak behingoan ihes egingo ahal zion... Eta, halako batean, gorputza ttentte ipini zuen, eta, *Ardélie et Jeannot* operetako *prima donnaren* modura, eskuak titi aldean bermatu eta betiereko amodioa eskaini zion kantuz Jon Gallimoreri. Txantxetan, —gutziz txantxetan— izan zen, noski. *Erotu da*, pentsatu zuen Jonek eta harritu aurpegia inprimatu zitzaion. Eta jarraian, agian —gutziz agian—, datorren hilerako erreserbatuta zuen Australiarako hegaldiaren data atzeratzea oso kontutan eduki beharko zuela uste izan zuen Ardeliak. Eta aldamenean zozo maitemindua bezala, begira-begira, zeukan gizon horren deia itxaron.

ARDELIA. —Bon. Eta, non arraio da mariorrazaren haginkada? —esan zion irribarre maltzurraz, titiak lotsa gabe eskainiaz; oparo.

JON GALLIMORE. —Ez duzu inoiz ikusiko. Bizitzako gauza garrantzitsuenak sekulan ikusten ez diren bezala —erantzun zion honek irribarretsu baina serio.

Jon Gallimorek ximaurra pipatu ohi duten artabixardun poeten tamainako esaldi astaputza burutu zuenerako, Ardelia sugandila bezain bizi, ohetik jaiki zen eta tiradera-altzariaren heldulekuan zintzilikatutako poltsatik sakelakoa jaso zuen. SMS mezu bat. Andyrena. Berriz ere ohean eseri eta Jon Gallimoreri bizkarra emanez: *"HPPY BIRTHDY, ARDY. I MISS U S MUCH"*¹ hauteman zuen. Izan ere, Ardeliak hogeita hamaika urte bete zituen bezperan eta Kitty beraien alabak egun horretan bertan, hamalau.

Kolpean itzali zuen telefonoa.

¹ Zorionak zuei, Ardelia. Hainbeste zaituztet gogoan...